

#JesusGureanEreBidelagun GAZTEAK

DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA

“Jainkoa
gauza txikietan aurkitu”



Zer adierazten du Pazko aldiak?

Pazko aldia, itxaropenezko aldia da. Itxaropena inork ostu ezineko funtsezko eskubide izan beharko luke! Kristauontzat itxaropen hau, gertatuak gertatu, Jainkoak ez gaituela bertan behera utziko sinesteari lotuta dago. Horixe izan baitzen Jesusen itxaropena ere. Bere ABBA, bere AITA, Berarekin egongo zen, batez ere gaizkien pasatzen ari zenean. Azken arnasaraino Berarekin egoteaz gainera, BERPIZTU egin zuen, hau da, Jainkoari esker Jesusen bizitzatik ezer ez zen alferrik galdu. Orain geuri dagokigu Jesus bizi izan zen bezala bizitzea eta, batez ere, itxaropen hau egintza zehatzekin agertzera ematea, lan duinik ez izatearren, bizileku duinik ez izatearren, maitasunik ez jasotzearren, bakarrik egotearren, bazterketa jasatearren, gaur egun itxaropen gabe geratzen ari dan hainbeste pertsonari. Jesusen jarraitzaile izatea, zeinu txikien, konpromiso txikien bidez itxaropena hedatzea da. Beste lagun batzuen bizimodua atseginagoa egiten saiatzen diren boluntarioak bai direla itxaropen sortzaile. Itxaropena gehien sufritzen ari diren pertsonen eguneroko bizitzara itxaropena eraman dezagula nahi du Jesusek. Eta Bera beti egongo da gurekin eginkizun horretan, agindu egin digulako!

#JesusGureanEreBidelagun

IKUSI

Begira dezagun ingurura. Zer gertatzen ari da? Gertatzen ari den edo gertatu den hainbat gauzaren sorburua Covid-19aren aurrekoa da. Eduardo Martin Ruano gaztearen post hau lagungarri izan daiteke gertatzen ari denaren inguruko –batez ere gazteoi gertatzen ari zaizuenaren inguruko- azterketa pertsonala egiteko

Gazteak berpizteko egitasmoa. (Sakatu hemen irakurtzeko).

Bat zatoz Eduardoren azterketarekin? Zertan bai eta zertan ez? Zuk zeuk, gazte bezala, bizi duzu post honetan agertzen diren egoeretakoren bat? Zein gizarte arazok eragiten dizuete gazteoi zuzen-zuzenean? Zein ondorio du guzti honen zeure bizitzarako?

EPAITU

Egoera horietakoren batean argi egiteko baliagarri izan daitekeen testuren bat edo beste proposatzen dizut. Beharbada, hitzen batek inspiratu egingo zaitu, Jainkoak aldaketaren eragile izatea eskatzen dizula eta horretarako biritza sakon bizi izan zuen, eta pertsona sufrimendua zekarkien guztia aldatzeko bere bizia eman zuen Jesusen laguntza duzula ulertzen lagunduko dizu.

Entzuteko

Se mi luz. (Sakatu hemen).

Irakurtzeko

“Jauna, ez dakigu nora zoazen; nola jakin bidea? Jesusek erantzun: Neu naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitarengan joan nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, Aita ere ezagutuko zenukete.” (Joan 14, 5-7)

Galdetu zeure buruari

Sentitu duzu noizbait galduta zaudela? Zer laguntzan dizu norabidea berreskuratzen? Zer dela-eta aukeratu duzu gaur ikasten ari zarena? Nazaretoko Jesusen ereduak laguntzen dizu zure urratsak bihar izan nahi duzunera bideratzen?

Irakurtzeko.

"Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite. Ni maite nauena, berriz, nire Aitak maite izango du, eta nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio berari". (Joan 14, 21)

Galdetu zeure buruari

Maite zaituztela sentitzen duzu? Nortzuk dira, gertatzen dena gertatuta ere, maite zaituztenak? Nor maite duzu bihotz-bihotzez? Sentitzen duzu Jainkoak maite zaituela? Gizarte konpromisoa besteen aldeko maitasunaren adierazpen izan daiteke?

Irakurtzeko

"Adore eman nahi dizut konpromiso hori har dezazun, jakin badakidalako «zure bihotz gazteak mundu hobea eraiki nahi duena. (...) Mesedez, ez utzi besteen esku aldaketa honen protagonismoa. Zeuona da etorkizuna. Zeuon bitartez sartzen da etorkizuna munduan. Zeuoi eskatzen dizuet aldaketa honen protagonista izateko. Jarraitu arduragabekeria gainditzen eta munduko hainbat lekutan aurkezten ari diren gizarte eta politika ardurei kristau erantzuna eskainiz. Gazte maiteok, mesedez, bizitzari ez balkoitik begiratu, bizitzan sartu. Jesus ez zen balkoian geratu, sartu egin zen; bizitzari ez balkoitik begiratu, bizitzan sartu, Jesus sartu zen bezala». Baina, batez ere, era batera edo bestera, borrokatu guztion onaren alde, behartsuen zerbitzari izan, karitate eta zerbitzuaren iraultzaren protagonista izan, indibidualismo kontsumista eta azalekoaren patologiei aurre eginez." (CV,174)



Galdetu zeure buruari.

Bizi dugunaldi hau, Covid-19ak markatuta, eta pandemia kontrolatu osteko aldia, oso zailak izango dira beren bizitzarako egitasmoari aurretik amestu bezala jarraipena ematerik izango ez duen makina bat lagunentzat. Aldi garrantzitsua izango da eta Jesusen jarraitzaileoi Berak bezala pentsatzen, sentitzen eta jokatzeko dugula antzeman beharko zaigu. Zer egin dezakezu gaur zure inguruan gaizki pasatzen ari den norbaiten alde?

OTOITZ EGITEKO

Ez dago Jainkoa aurkitzea baino ezer praktikoagorik.

Hau da, erabat eta atzera begiratu gabe maitemintzea.

Imajinazioa ere kentzen dizun zerbaitez, goitik behera eragingo dizun zerbaitez maitemintea.

Goizez zerk altzaraziko zaituen
erabakiko du,
zure ilunabarrekin egingo duzuna,
asteburuak nola igaroko dituzun,
zer irakurriko duzun, nor ezagutu
zer hautsiko dizun bihotza
eta zerk harrituko zaituen
poztasun eta ezker onez.
Maitemindu zaitez, maiteminduta iraun,
eta horrexek erabakiko du guztia.

Pedro Arrupe sj.

EKIN

Taldean batera jarri hartu duzun konpromisoa edo tarte honetan antzeman duzuna.

Hona hemen batera jartzeko bide bat: atera argazkia zuretzat garrantzitsua den gauza bati, hausnartu duzunarekin zerikusia duen zerbaiti eta bidali taldeari, azpian esaldi bat idatzita.

Taldeko begiraleak collage edo bideoa egin dezake elizbarrutira #JesusGureanEreBidelagun hashtagaz baliatuz bidalitako argazki eta horiekin batera idatzitako "txio" guztiekin.

